



# EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

## INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze  
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

Egilea - Auteur : Sustrai COLINA  
Iturria - Source : Kattalin Totorikak 2004ko urrian egin elkarrizketa / Entretien de Kattalin Totorika - Octobre 2004 - Itzulpenak - Traductions : Kattalin Totorika  
Urtea - Année : 2004

### Sustrai COLINA

#### ZALETASUN BATEN JATORRIA

« Ni bertsoan Amets Arzallusen bidez hasi nintzen, Ametsen aitaren bidez. Ikastolan ematen genituen gauza batzu bertsolaritzari buruz, baina gero bertso-eskola bazela jakin nuen eta badakizu, 8 edo 9 urte duzunean, gustatu edo ez gustatu, gehiago da lagunek zer egiten duten. Orduan eman genuen bertso-eskolan izena pilotako taldean edo futboleko ematen genuen bezala. Eta gero ibilian, ibilian, gustua hartu nuen. Zorionez, oso lan talde ona bagenuen. Horrek ere asko motibatzen du aurrera segitzeko zeren, azken finean, bakarrik baldin bazira zerbaitetan, momentu batean etsitzen duzu. Ni pilotan ari nintzen orduan. Pilotan badakizu irabazi duzun ala ez, bertsoan adin horietan ez zara ongi konturatzen zertan ari zaren, zergatik, zer epaitzen den, zer ez... Alde horretatik kirola askoz ere errazionalagoa da neurtzerako orduan, eta haur batek hori neurtzen du. Gainera, orduan haur batek nahiago zuen Retegi izan Egaña baino. Orai, alde horretatik gauzak aldatzen ari dira, bertsolariak telebistan gehiago agertzen baitira, irratietan ere bai, eta gaur egun hurrek bertso-eskolan izena ematen dute bertsolari izateko anbizioarekin. Baina gure garaian hori ez zegoen. Guk aitzina segitu dugu lagunarteagatik eta suerte izan dugulako. »

#### AITAMEN ERAGINA

« Nik xantza izan dut. Etxean beti nahi dudana egiteko eskubidea ukan dut. Horrela ikasi dut ardurak hartzen eta horrela konturatu naiz zer zen ongi eta zer ez, hanka sartuz. Gurasoek beti esan didate bertsoan segitzeko, ikasten zirela balore asko gero bizitzan beharrezkoak zirenak. Adibidez jende aurrean egote horrek ahozko azterketetan asko balio izan dit. Ni gai baldin banaiz ehun pertsonen aurrean zerbait inprobisatzeko, pertsona baten aurrean buruz ikasi dudana zerbait esatea ez da hain zaila izango. Ttikitan ikastolan jende aurrean mintzatzeko hurrak normalki lotsatzen ziren, eta guk alde horretatik errextasun hori izan dugu beti. Gero oholtza gainean normalean zaren bezala agertzen zara bertsoan, edo behintzat zure nortasunaren zati asko publiko egiten dituzu, eta horrek behartzen zaitu publiko egiten dituzun nortasunaren zati horiek asumitzera. Horretarako, nor bere burua asumitzeko nik uste



# EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

## INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze  
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

bertsoak anitz balio duela, batez ere adin kritiko batean, 15/16 urte... Normalean bere inperfekzio guziekin oholtzaren gainean igotzeko gai den haurrari bere burua onartzerako orduan bere azalean ongi izaten laguntzen dio.”

### LEHENGO BERTSOLARIEN ILDOA

« Ni ttikitan pilotari izan nahi nuen. Bertsolari izan zitekeenik ere apenas jakingo nuen. Gero bai, pixkanaka pixkanaka, sinesten joaten zara izan zintezkeela bertsolari, denen dohaiak harrapatzen saiatzen zara, eta batzu miresten dituzu. Gero, miresten dituzun horiek ondoan dituzu saioetan, eta lagun bezala ikusten dituzu. Prozesu hori ezagutu dugu. Izan liteke Joxe Agirrekin, hirurogeita hamabost urte eta oraindik plazaz plaza bertsotan. Pertsona bezala ezagutzen duzunean oraindik maitagarriagoa egiten zaizu. Ikur bat, sinbolo bat da eta zurekin joaten da herri batera eta, zer umila den gizona, nola hartzen zaituen dena laguntzeko, hori adibidez oso eskertzekoa da. Beste bat Andoni Egaña izan liteke, hiru txapel, teorizazio mailan egin litekeen guzia, praktikan astro bat, berritzailea, aitzindaria, baina mahai inguruan zurekin dagoenean, bat gehiago. Horiek lekzio handiak dira. Nahiz eta bertsolaritzan jende oso desberdina izan izaeraz, bizimoduz, jatorriz, jende aurrean ikuskizun on bat emateko behar horrek asko estutzen ditu harremanak : momentu insegurua pasa duzunean pertsona baten ondoan, normalki pertsona harekiko harremana hobea bihurtzen da, konfiantza sendotzen da. Bertsolarien artean hori badago. Komeni zaigu beti ongi eramatea elkarrekin. Alde horretatik oso giro sana da. Lehia baldin bada, norbera bere buruarekin da. Gainera txapelketetan, bereziki finaletan, denek saio on bat egiten badugu, norbera ongi gelditzen da, ez du galtzen, nahiz eta zortzigarrena izan. Jendeak gehiago begiratzen dio egin duen saioari postuari baino. Eta horrek laguntzen du nor bere burua gainditzen eta lehia izpiritu hori baztertzen. »

### AMETS ARZALLUSEKIN OSATU BIKOTEA

« Uste baino gehiagotan gertatzen zaigu elkar harritzea, egoeratik. Bertsoa asko aldatzen da testuinguruaren arabera. Bertso berdina kantatuz gero bi testuinguru desberdinetan, batean ona izan daiteke, eta bestean txarra. Nik ez dut berdin kantatzen gaztetxe batean edo eliza batean. Hor harritzerako tartea handitu egiten da. Ametsek gehien harritzen nau bere kontestu naturalak ez diren tokietan : Ametsek futbolari buruz kantatzen ez nau harrituko, badakit hori Atik Zra menperatzen duela, baina erlijioari buruz Ametsek segurasko harritu egingo nau badakidalako horretaz oso gauza gutti dakizkiela. Hori maitasun bikoteetan ere gertatzen da, azkenean bertsoa elkarriketa baita. Eta elkarriketa beti berria den heinean, harritzeko tartea beti daude. Gu bikotea gara, asko ibiltzen gara batera, baina bi gara. Amets eta ni desberdinak gara. Nik uste hori dela bertso bikote bat aberasteko modu ederrena. »



# EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

## INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze  
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

### **SORKUNTZAREN BIDEA**

« Lehenik, azken puntua pentsatzen da, bukaera. Hori azkenean erretorika da, edozein diskurtso egiten denean, lehenik ideia nagusia bukaeran ematen saiatzen da beti. Eta gero, aitzinekoa da arrazoi horretara iristeko dagoen bidea. Jakin behar da bertsoa dela kantatua, neurtua eta errimatua. Ibiltzearen usaiaz, azken arrazoa normalki neurtua etortzen zaizu. Eta gero arrazoi horren azken hitzak ematen dizu errima. Ohiturarekin, zure buruan badituzu oin zerrenda batzu eta berdin bukatzen diren hitzen zerrenda batzu. Gero zerrenda horretatik abiatuta, hasten zara puntuak egiten. Baina kantatzeko ezin duzu bi minutuz zain egon, orduan hasi egiten zara, jakinda besteak, ibiliaren ibiliz, etorriko zaizkizula. Bertsotan binaka ari zarenean, saiatu behar duzu zure azken arrazoa aitzinetik kantatu den bertsoaren erantzuna izan dadila, eztabaida baita bertsoa. Teorian aurrekoaren bertsoa da zure bertsoaren abiapuntua. Aurrekoak galdera egiten badizu, zuk erantzuna egin behar diozu. Jakina, txapelketa batean, jende askoren aurrean, gizakia da berez horrelakoa, errexenera jotzen du beti... Zure arrazoa bi puntutan ezartzen baldin baduzu ontsa, eta baldin badakizu lehen bi puntutan besteari erantzunen diozula nolabait, bertsoaren erdia kantatzen hasi aurretik eginga daukazu, oso seguru ari zara, erdi tranpa da, baina balio du. Benetan meritua dauka ezer pentsatu gabe egon besteak bertsoa bukatu arte eta hor hastea bertsoa egiten hamar segundu horietan. »

### **GAIK GUSTUKOENAK**

« Gustatzen zaizkit zeresana duten gaiak. Bertsolari batentzat problema ez da bertso egitea, problema da zer esan. Eta gero jendearengana iristeko moduko gaia izan behar da. Berrogeita hamar baserritarren aurrean Iraki buruzko gai bat ematen badizute, zuk zure bertso onenak kantatuta ere, gutti gora behera berrogeita hamar baserritar horiei berdin izango zaie. Ez delako haien munduko erreferentzian sartzen. Baina berrogeita hamar baserritar horiei ezartzen badiezu gauza askoz sinpleago bat : zu laboraria zara eta laborantza ganbara galdetzen ari zara azken hamar urteetan... Munduari begira askoz transzendentzia guttiagoko gai bat da, baina hor bertsoan normal samar eginda ere, iritsi egingo zara laborariengana. Nik uste gehienbat horrelako gauzak zaindu behar direla gai gustagarriak izaterako. Gero, denei gustatzen zaizkigu gure benetako iritzia emateko aukera uzten diguten gaiak. Batzutan ez da errexa. Euskal Herrian bizi gara eta egoera politikoa dena delako, badakigu gauza bat esaten baldin badugu, batzu minduko direla. Bere sarrera ordaintzen duen pertsona bati mina ematea edozein artistarentzat problematikoa da. Beraz hitzak neurtu behar dira. Fikzioan aritzea askoz ere erosoagoa da. Baina fikzioak



## EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze  
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

badu beste alde bat ere : batzutan kantatu behar dituzu zure buruaren aurkako arrazoiak eta horrek ere mina ematen du, nahiz eta jakin fikzioz ari zarela. Nik uste biak neurri onean nahasiz gero, hor ateratzen direla saio onenak. »

### **BERTSOLARIEN GAITASUNAK**

« Hizkuntza ongi menperatu behar du eta gainera gustatu egin behar zaio hitzekin jolastea, ez bertsotan ari denean bakarrik. Hori bizimodu bihurtu behar du. Dohain nagusia hori da. Beste dohain bat jendearekin tratatzen jakitea da. Zu herri bat zoazenean, ez duzu inor ezagutzen askotan : inondik ezagutzen ez dituzun pertsonekin elkarriketa gaiak atxeman behar dituzu, eta ez da errexia. Horrek asko irekitzen du pertsona. Gainera besteak baino guttiago zara, besteak beren inguruan direlako. Ezagutzen zaituzte eta zuk ez dituzu ezagutzen. Hori ere oso aberasgarria da. Gero, nik uste bertso-eskolan gaur egun edozeinek ikasten ahal duela bertsotan. Oso lan mekanikoa da. Beraz hamar urteko haur bat etortzen bada bertso-eskolara eta irakaslea ez bada traketsesia, urte baten buruan ikasten du zortziko ttiki bat kantatzen. Hori frogatuta dago. Horrek ez du erran nahi bertsolaria denik. Bertsolari bihurtzeko, faktore asko sartzen dira : zenbat maite zaituen jendeak, zer karismoa duzun, jendeak zerekin identifikatzen zaituen, xantza eta zaletasuna. Ordu asko eskaini behar zaizkio bertsoari : bertso saioak ostiraletan, larunbatetan eta egun libreetan izaten dira. Askotan lagunak utzi behar dituzu. Bikote harreman bat eramateko ere, ez da batere errexia. Ni ez naiz astelehenetan joaten lanera, baina jendeak libre dituen ordu guzietan, etxetik kanpo nabil. Hori onartzeko prest dagoen jendea ez dago mila. Jendeak uste du bertsolariak beti festan direla, baina sakrifizio asko eginda ! Eta egia da, hotzean pentsatuta, gure inguruak asko sufritu duela. Ama batentzat ez da baitezpada errexia jakitea goizeko 3etan bere semea errepidean dagoela. Horrelako gauzak badaude, ikusten ez direnak. Beti esaten da bertsoak asko ematen duela asko ematen bazaio. Eta asko eman behar zaio. »

### **LEHEN URRATSAK**

« Ni zortzi urtetan hasi nintzen. Gero hamabi urtetan utzi nuen eta hamabost urtetan berriz hasi nintzen Hendaian. Talde berri bat sortu zen irakasle berri batekin eta gero, pixkanaka pixkanaka, Oiartzunera joaten hasi ginen. Orai Oiartzunen dugu lagun taldea eta hara joaten gara. Oso lagunarte sanoa izan dugu beti, eta hori da bertso eskola bat aitzina eramateko modu bakarra. Bertsoa aitzakia bat da. Ez da beharrezkoa bizitzan eta orduan, ez baduzu lagunarte motibagarririk, oso errex uzten duzu. Ez naiz ongi oroitzen zein zen gure lehen emanaldia jendearen aurrean, baina ez dut oroitzapen txarrik, ez nintzen traumatizatu eta hori ere inportantea da. Sufritu duzun gauza batean ez duzu



# EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

---

## INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze  
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

segitu nahi. Orai beldurra baino tentsioa sentitzen dut. Eta tentsioa behar da. Lasaitasun gehiegi da txarra inprobisatzeko. Erreflexuak erori egiten zaizkizu eta, urduriegi egotea txarra den bezala, erabat blokeatuta zaude. Baina urduri bai, hasi aurretik, jende aurrean kokatu arte. Gustatzen zait bertigo hori. Momentu hori oso indartsua da. »

### **ORAI ETA GERO**

« Gaur egun klaseak ematen ditut Hendaian, Amets Arzallusekin batera. 14/15 urtekoak ditugu. Iparralde osoan uste dut dozena bat bertso-eskola badirela. Nik uste bertsolaritza oso sana dagoela. Azken finean, hegoaldean bertsoa oso sustraituta dago, iparraldean sustraitzen ari da. Gainera, ikastoletan bertsoa jaso dute modu positibo batean, lehen ez zen beti modu positiboan jasotzen. Garai batean bertsoarekiko zegoen mespretxua orain ez dago, alderantziz, abantzu prestigiatua da. Eta hori hala den bitartean iraungo du bertsoak. Problema da euskara desagertzen bada. Ni ez naiz oso kezkatuta etorkizunarekiko, gehiago kezkatzen nau orainak adibidez. Orain gauzak ongi egin behar dira gibeletik heldu den belaunaldi hori etortzeko, eta gibeletik heldu den belaunaldi horren gibeletik etorriko dena ekartzeko, ez izateko gu etorri aurretik gertatu zen eten hori.»